

BEZEROAKIKO HARREMANA

Lehenik eta behin, zehaztu beharra dago gure egitasmoak ez duela zerbitzu edo behar iraunkor bat sortzeko asmoa, aisialdian egin ahal izateko ekimen baterako eskaintza luzatzen bai dugu. Hau da, gure helburua ez da bezero finkoak sortzea, edo hauen artean komunitatea sortzea, baizik txangoak antolatzerako momentuan gure eskaintza aukeratuz gero (funtsezko elkarteetan zehaztu dugun moduan) ahalik eta esperientzia oberena ematea.

Bezeroak gure zerbitzua erabiltzeko, hasiera batean, bi harreman mota emango genituzke: Pertsonala eta automatizatu. Arestian aipatu bezala bidaia agentziekin egindako hartuemanak asko baldintzatzen du bezeroak lortzeko prozesua, baina horretaz gain gurekin harremanetan jartzeko bide zuzenak ere prestatuko ditugu. Alde batetik, webgune bat sortzea erabaki du, harreman automatizatu eredurako. Bertan gure eskaintza, prezioak, kokalekua, segurtasun-bermeak, ... agertuko dira. Modu hontan bezeroari bere kontura informatzeko aukera emango zaio, honek gure eskaintza subjektiboki baloratzeko. Beste aldetik, harreman zuzena izatea ere posible izango da eta horretarako webgunean bertan gure telefono zenbakia edo helbidea egongo dira. Horrela, nahi izanez gero, bezeroak gurekin kontaktatu ahalko du eta gure partetik xehetasun guztiak emango dizkiogu gure aisialdi zerbitzuaren inguruan. Ondorioz, Paint-ball egitera etorri baino lehen, gure eskeintzaren berri izango dute eta horretarako, gure webguneko informazioak ez du izango inongo informazio utopikorik, eskeintzen duguna bere osotasunean azalduko dugu.

- Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Lehenik eta behin, gogoratzeko, esan beharra dago gurekin harremanetan dauden bidaia agentzien planifikazioan sartzen bada gure zerbitzua, bezeroek %20-ko deskontua izango dutela, eskeintza paregabea. Gainera, bidaia agentziekin zehaztu genuen bezala, haiek gure propaganda egingo dute, beraz bezero berriak erakartzeko bide bat izan daiteke. Horrez gain, gure webgunea egongo litzateke eta baita ere Mutriku Herrian zehar jarrita egongo diren informazio txartelak ere: Turismo bulegoan eskuragarri. Lehen esan bezala, oso zaila da gure ekimenarekin bezeroak mantentzea, baina gehiago etortzearen ideia luzatzeko, deskontuak eskainiko dira lehen aldiz etorritakoei (hala ere puntu hau oraindik zehazteko dago) eta seguru gaude esperientzia gustatzen bazaie informazioa zabalduko dutelako pertsonalki, bezeroak erakartzeko modu inplizitua edozein enpresarentzat. Gure erakarpen estrategiak ez dute ezer berrizailerik, baina ala ere, gure inguruan dauden Paintball leku urriak begiratuta, imagina dezakegu eskaintza kontuan hartzekoa dela.